



Durangoko Azokan parte hartzeko laguntzak

Honen bidez, 2025eko Durangoko Azokan erakusmahaia alokatu duten partaideei gastuak ordaintzeko laguntzak arautzen dira.

Helburua:

Durangoko Azokan erakusmahaia alokatzeko zailtasunak dituzten partaideei parte hartzea erraztea.

Onuradunak:

Durangoko Azokan erakusmahaia alokatu duten partaideak, baldin eta erakusmahaia adierazitako epeen barruan ordainduta badaukate.

Laguntza hauetatik kanpo gelditzen dira:

- Erakunde publikoak.
- Durangoko Azokarekin (Gerediaga Elkartearekin) hitzarmenen bat indarrean duten partaideak, zeinaren ondorioz erakusmahaia alokatzeko hobariak dituzten.
- Durangoko Azokan parte hartzeko dirulaguntza publikoren bat jasotzen duten partaideak, edota Durango Azokan parte hartzeak sortutako gastuak dirulaguntza publiko bat zuritzeko erabiltzen dituzten partaideak.

Zer laguntzen den:

Durangoko Azokan erakusmahaia alokatzeko gastuak, baldin eta aurkezten diren urteko nobedadeen %51 sorkuntzarekin lotutakoak eta euskaraz badira.

Laguntza hauetatik kanpo gelditzen dira osagarrien alokairuagatiko gastuak: apalak, kuñak, tabureteak, e.a.

Gehienez erakusmahaien alokairutan gastatutakoaren %50 (BEZ gabe) lagunduko da. Kopurua kalkulatu da partaideak 1. eranskinean emandako datuetan oinarrituta.

Nola aurkeztu, noiz aurkeztu eta zer aurkeztu:

1. Eranskina osatu eta bidali behar da gerediaga@durangokoazoka.eus helbidera. Eskaera aurkezteko azken eguna abenduaren 14ko gaueko 00:00ak.

Esleipena eta ordainketa:

Gerediaga Elkarteko zuzendaritza batzordekideek osatutako epaimahai batek esleituko ditu laguntzak.

Laguntza esleitu zaionari abonatu faktura jaulkiko dio Gerediaga Elkarteari eta bankuan egingo dio esleitu zaion diru-sarrera.

Dirulaguntza esleipenak publiko egingo dira Azokako partaideen artean.

Durangoko Azokan parte hartzeko laguntzak

1. Eranskina

Expediente zenbakia (ez bete)			
Dirulaguntza eskatzen duen erakundearen datuak *oharra: erakusmahaiak eskatzerakoan fakturazio datuetan adierazitako erakundeak eskatzen du dirulaguntza hau.			
Erakunde/auto-ekoizlearen izena			
IFZ/NAN zk.			
Ordez kariaren datuak			
Izen-abizenak			
NAN zenbakia			
Gastu-sarrerak			
Erakusmahaiaren alokairu gastuak (BEZ barne)			
Azokako salmentak (BEZ barne)			
Ziurtatzen dut ordezkatzan dudana erakundeak ez duela dirulaguntza publikorik jaso 2025eko Durangoko Azokan erakusmahaia jartzeagatik, eta erakusmahaiaren izandako guztizko salmentak goian adierazitakoak direla.			
Data		Sinadura	